

## ULMA ETA PANDEMIA

2021 uztaila  
# 52



4



### — Albisteak eta gaurkotasuna

—  
ULMA Enkofratuak azpiegitura handi baterako Filipinetan  
**05**

—  
ULMA Conveyor Componentsen GAZIMO proiektuak HAZITEKek Enpresaren I+Grako ematen duen laguntza finantzarioa lortu du  
**09**



—  
Inoxtrucken neurrirako soluzioa Casa Tarradellasentzat  
**13**

—  
Biltegi automatizatu berria, ULMA Handling Systems enpresak garatua  
**15**

16



### — ULMA Taldeko beste talentuak

—  
Iban Yaniz. Itzaletik argira. Disko bihurtutako hobbya  
**16**

18



### — Erreportajeak

—  
Irudi eta nortasun bisual korporatibo berria ULMArentzat  
**18**

—  
ULMA eta Pandemia  
**20**

33



### — Agenda eta iradokizunak

—  
Erretiroak maiatzak 1 – abuztuak 31  
**33**

—  
Kanal Digitalak  
**34**



ARGITARATZAILEA: Grupo ULMA S. Coop. B° Garagaltza 51 20560 OÑATI, T 943 25 03 00

ZUZENDARITZA: Carlos Sarabia | csarabia@ulma.com

EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA: Joseba Alberdi, Elena Goirizelaia, Janire Laconcha, Maria Sendin, Irene Moreno, Edurne Unzueta, Nerea Burgoa, Itsaso Letamendi eta Carlos Sarabia

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Igone Basterra | ibasterra@ulma.com



2

3



## ULMA HANDLING SYSTEMSEN AUTOMATIZAZIO LOGISTIKOKO PROIEKTU BERRIA CINFA LABORATEGIETAN



ULMA HANDLING SYSTEMS

Laboratorios CINFA etxeak bere egungo biltegia handituko du ULMA Handling Systemsen automatizazio logistikoko proiektu berri batekin. Proiektuak **biltegi automatiko berri bat aurreikusten du produktu transbasaturako, bi biltegien arteko konexioa garraio automatikoko kadentzia altuko sistema batekin, STV bidez, transjasogailu osagarriak dituzten lau pasabide, eta dagoeneko CINFA ezarrita dagoen ULMAren monitorizazio**

**eta ikuskatze sistema eguneratzea eta handitzea.**

Proiektua 4.0. industriaren aldeko apustu argia da, ULMAK garatutako U.Mind Sentinel sistema ikuskatzaileari esker. Sistema hori hodeian dago, eta instalazio logistikoen monitorizazioa eta interakzioa ahalbidetzen du denbora errealean, datuen tratamendu masiboari, cloud computingari eta azken prestazio digitalei esker.

CINFAko Eskaeren Prestaketa, Logistika eta Banaketako arduradun Javier Aranguren Goñiren arabera, *"biltegiratzeko ahalmena handitzeak, STV sistemen irtenbide malguarekin batera, onura handiak ematen ditu irtenbide tradizionalekin alderatuta. Irtenbide horrek, CINFAren eta ULMAren arteko lankidetzaren ondorioz, aukera ematen digu bi siloen integrazioa gure eskaerak prestatzeko etorkizuneko instalaziora egokitzeko"*.

## ZURE IBILBIDEETAN BIZIKLETAN ENERGIA AURREZTEKO KONPROMISOA

Apirilean **2,41 tona CO<sub>2</sub> gutxiago isuri dira ULMAko pertsonak** Ciclogreen programaren barruan **"30 egun bizikletaz"** erronkan parte hartzeari esker, 9.647 kilometroko distantzia eginda. Erronkaren muina da lanera bizikletaz joatea, gure ingurumena zainduz, mugikortasun jasangarriago baten aldeko konpromisoarekin.

**2021ean dagoeneko 265 lagunek parte hartu dute, zeinek 85.232 km egin baitituzte, guztira 19,31 tona CO<sub>2</sub> aurreztuz.** Programan parte hartzeko [www.ekokilometro.ulma.com](http://www.ekokilometro.ulma.com) webgunean izena eman besterik ez da egin behar, eta abiapuntuko edo helmugako bidea egin estatu barruan, ULMAko zure Negozioan. Ondorioz energia aurrezteaz gain, parte hartzen dutenek "zikloak" irabazi eta opariengatik trukatu ahal izango dituzte programaren barruan.

**Reto 30 días en bici**

Ciclogreenek antolatutako 30 egun bizikletan erronkaren errekonozimendua enpresari:

**ULMA Taldea**

Guztira bizikletan 9.647 km egiteagatik, atmosferara 2,41 tona CO<sub>2</sub> gutxiago isurtzea lortuz.

ULMA Ciclogreen

ULMA TALDEA

## ULMA ENKOFRATUAK FILIPINETAKO AZPIEGITURA HANDI BATERAKO



ULMA CONSTRUCTION

**Cebu-Cordova lotuneko autobideak 8,25 km luze eta 27 m zabal eta bi errei izango ditu norabide bakoitzean, egunero 40.000 ibilgailu ingururi zerbitzua emateko.**

Cebu eta Cordova hiriak, uraren gainean, lotzen dituen azpiegitura, **650 metroko tirante zubi** baten diseinua eta eraikuntza da, zeinak **bi pilonoen artean 390 metroko bao nagusi bat izango duen eta pilonoak** oktagonak, aldakorak aurpegi guztietan, eta **150 metroko altuerakoak izango diren.**

**ATR sistema autoigokariarekin ez da soilik pilonoen altuerarako eta geometriarako konponbidea bilatu; egokia izan da, baita ere, Magallanes Cebura iritsi zeneko unea gogoratzeko hormigoian sartuta jarri den 50 metroko metalezko gurutze apaingarrira moldatzeko.**

Cebuko hegoaldeko kostaldeko errepidea zubi nagusiarekin lotzeko, teknikoki goi mailako ezaugarriak dituen baoburuko

habe bat behar izan da bermatzeko. ULMAko ingeniari taldeak **MK sisteman oinarritutako soluzio bat proposatu du 45 m sekzio karratuko habe bat egiteko, bi pilareren gainean eta 8,3 m hegalekin.**

**ULMAko langileen presentzia etengabea izan da proiektu honetan,** eta bezeroari egunero eta proiektuaren hasieratik lagundu zaio.



## GERENTE BERRIA ULMA ADVANCED FORGED SOLUTIONSERAKO



ULMA ADVANCED FORGED SOLUTIONS

ULMA Advanced Forged Solutionsek **Mikel Lazaro Aguirre** izendatu du **Kooperatibako gerente berri,** Jesus Urienen ordean, zeina Proiektuen Garapeneko zuzendaria izango baita Kooperatiban bertan.

Mikel Lazaro Bilbon jaio zen, eta Tubacex Taldean egin du bere ibilbide profesionalaren zatirik handiena. Talde horretan, 23 urtez, zuzendaritza postuak bete ditu Departamentu Komertzialean eta Gerentzian. Gainera, esperientzia profesionala du auditoretzan eta kanpo merkataritzan.

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatetik, eta prestakuntza osagarria du Enpresen Nazioartekotzean.

Negozioaren buru izango da eta, zuzendaritza taldearekin batera, bere zeregina izango da kooperatibaren eraldaketa prozesua gidatzea eta Plan Estrategiko berriarekin lerrokatzea, munduko Oil & Gas merkatua, bere merkatu nagusia, jasaten ari den aldaketekin bat etorritik.



## ESTETIKA MODERNOAREKIN AURREFABRIKATUTAKO BALKOIAK MADRILGO ERDIGUNEAN DAGOEN OSTATU BERRI BATERAKO



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

MADRILGO "TAS VALOR ARQUITECTURA" ESTUDIOAK HIRU BALDINTZA JARRI ZITUEN ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONSI MADRILGO CENTRAL HOUSE OSTATU BERRIRAKO 56 BALKOI AURREFABRIKATUAK ENKARGATU ZIZKIONEAN: DISEINUAREN AKABERA PERTSONALIZATUA KOLORE ESPEZIFIKOAREKIN, INSTALAZIO AZKAR ETA ERRAZA ETA ITXURA MODERNO ETA MINIMALISTA.

Proiektu berria Lavapies auzoan dago, eta bere berezitasuna da balkoiak direla protagonista, polimero hormigoizko antrazita gris koloreko **3 pieza aurrefabrikatuz** osatuak, kristalezko barandarekin, fatxada berezi batean, estetika simetrikoko eta garbi batekin,

zeinak eraikinaren ageriko adreilu gorriarekin kontraste estetikoak eragiten baitu.

Polimero hormigoiak **arintasun handia** ematen du, instalatzeko garaian lan egitea **errazten** duena. Gainera, **material ez porotsua** da,

xurgapen maila baxukoa, fenomeno atmosferikoen eta kutsaduraren aurrean erabateko estankotasuna eta gutxieneko higadura bermatzen duena. Ezaugarri hori oso beharrezkoa da Madril bezalako hirietan.

## ULMA PACKAGINGEK LEAFMAP™ IRTENBIDE BERRIA GARATU DU XERRATUTAKO PRODUKTUAK MODU JASANGARRIAN BILTZEKO

ULMA Packagingek LeafMap™ garatu du, ontziratze soluzio berri bat xerratan jarritako produktuarentzako, paper zuntzeko egiturarekin, plastikozko egitura tradizionalaren orde. Ontziratze soluzioaren oinarrian **%100 birzikla daitezkeen kartoizko erretilu lauak daude, plastikoaren erabilera %80ra arte murriztea ahalbidetzen** dutenak. Gainera, birziklatze prozesuak hobetzen ditu, irekitzeko erraztasunari eta osatzen duten materialen bereizketari esker.

LeafMap™ atmosfera kontrolatuko (MAP) ontziak egiteko diseinatuta dago, **baldintza erabat higienikoak bermatzeko, eta ontziratutako elikagaien**



ULMA PACKAGING

**propietateak kontserbatzea lortzen da ireki eta kontsumitu arte.** Kartoizko erretiluek, gainera, bi aldetara inprimatzea ahalbidetzen dute, bilgarriari komunikazio bisualerako aukera handiak emanez.

Irtenbide berri hori #ULMAweCare proiektuaren barruan kokatzen da: proiektuak diseinu eta aplikazio jasangarrien garapena sustatzen du ULMAren ontziratze makinaren gama zabalerako.

## EPT-20LIO TRANSPALET ELEKTRIKO BERRIA INOXTRUCKEN ERABILERA INTENTSIBORAKO

ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK



ULMA Manutentzio Zerbitzuak enpresa, Inoxtruckekin batera, modu presentzian izan da CFIA Rennes 2021 nazioarteko nekazaritzako elikagaien azokan, eta EPT-20LiO SUPERCOMPACT transpalet elektriko berria aurkeztu du. LITIO IOI teknologia duen transpalet berria **trinkoagoa** da, bere **bateriaren tamaina**

**txikiak aurreko EPT-20 makina baino 20 cm laburragoa izatea ahalbidetzen** baitio.

Transpalet elektriko berriak, **diseinu berritzaile eta** higienizagarriaz gain **LITIO IOIZKO bateria bat du, 24V-eko ahalmen handiko karga azkarrekoa, ez du mantentze lanik behar eta modu intentsiboan**

**lan egiteko aukera ematen du hainbat orduz, izan ere, pausa laburretan kargatzea ahalbidetzen du; horri esker, lanaldi osoan bateriaren autonomia luzatzen laguntzen du. LITIO IOI teknologiari eta bere tamaina txikiari esker, **EPT-20LiO SUPERCOMPACTek espazio txikietan produktibitate handiena lortzea ahalbidetzen du.****

## MIKEL UÑA, SILIKOSIRAKO ZAINZA ESPEZIFIKOKO PROTOKOLO BERRIAREN EGILETAKO BAT

ULMA Taldeko Lan Osasuneko Zerbitzuko Mikel Uña medikuak **"Zaintza Espezifikoko Protokoloa: silikosisia"** izeneko protokolo berria idazten parte hartu du; protokoloa **Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluak onartu berri du, eta estatu osoan aplikatu behar da.** Protokoloa Prebentzio Zerbitzuetako osasun langileei zuzenduta dago, eta maiatzaren 11n aurkeztu zen Prestakuntza Tailer batean.

Protokoloa **lanean silize hautsarekiko esposizioan dauden pertsonen osasun zaintzak egiteko beharretik sortu da, ez bakarrik meatzaritzaren esparruan, baizik eta baita beste**



ULMA TALDEA

**sektore batzuetan ere, hala nola galdategietan edo eraikuntzan.** 2011z geroztik, laneako mediku talde batek, Mikel Uña tartean zela, proiektu horri ekin zion, estatuan indarrean zegoen protokoloaren erabakiak berrikusteko eta lehen mailako prebentzioak lan arloan

duen garrantzia azpimarratzeko. **Protokolo berriak kontuan hartzen ditu silizearen dosi metatua eta langileen esposizio urteak, lanpostuen neurketa higienikoak egiteko.**



## MOTA GUZTIETAKO COVID-19 SEGURTASUN MASKARAK ONTZIRATZEKO MAKINA BERRIAK ETA AUTOMATIZAZIO PROIEKTUAK



ULMA PACKAGING

ULMA Packagingek zabaldu egin ditu Medical eta Farmazia sektorerako ontziratze aukerak, **zerbitzu berriak eskainiz sektorearen eskakizunik zorrotzenak eta babes maskaren fidagarritasuna eta segurtasuna bermatzeko, pandemiak eragin dituen segurtasun neurri berriei erantzunez.**

ULMAk medikuntza eta farmaziako produktuak ontziratze makinetan duen esperientziari esker, **forma eta lotura desberdinak dituzten maskaretara egokitutako irtenbide berriak lortu ditu, baita material desberdinak konbinatzeko eta amaierako ontzia pertsonalizatzeko ere**, edozein maskara motaren ezaugarri eta espezifikazioetara moldatzeko, maskararen forma,

lotura edo eusteko modua edozein dela ere.

Soluzio horiei esker, hainbat maskara mota ontziratuta daitezke, bereziki COVID-19aren aurka seguruenak direnak, hala nola kirurgikoak eta FFP2 motakoak, banakako formatuan zein multzotan. Gainera, automatizazio

proiektuak diseinatzeko aukera nabarmentzen da, maskarak eskatzen diren betekizunen arabera ontziratuta ahal izateko.

COVID-19-AREN AURKAKO MASKARA MOTA SEGURUENAK, KIRURGIKOAK ETA FFP2 MOTAKOAK, ENBALATZEKO PRESTATUTAKO MAKINAK



## ULMA CONVEYOR COMPONENTSEN GAZIMO PROIEKTUAK HAZITEK-EN ENPRESAREN I+G-RAKO EMATEN DUEN LAGUNTZA FINANTZARIOA LORTU DU

HAZITEK - enpresen I+Gari laguntzeko programak ULMA Conveyor Componentsen proiektua finantzatu du: **"Meatzaritzako karga garraiatzailean akatsak goiz detektatzeko sistema berria, energetikoki efizienteak diren arrabol sentsorizatu berrien bidez. GAZIMO-2"**.

Gazimo proiektua ULMAren soluzio erreal eta erabilgarri bat da, eta **haririk gabeko sentsore sare batek osatzen du. Sare horrek datuen analisi osoa egitea ahalbidetzen du, eta egon daitezkeen arazo berri ematen du denbora errealean, 15.000 arrabol baino gehiagoko komunikazio sare bat sortzeko gaitasunarekin.**

Proiektua 2014-2020 Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantzatzen du, Eusko Jaurlaritzaren eta Europar Batasunaren partaidetzarekin, eta asmoa da arrabolen lan baldintza zorrotzek eragin ditzaketen arazoak hobetzea, izan ere, arazoak detektatzeko ikuskapen eta mantentze lanak oso garestiak dira, eta, batzuetan, zailak; ondorioz, ekoizpenaren efizientzia murrizten da, eta makinaren segurtasun operatiboaren maila jaisten da.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

## KALITATE LERRO AUTOMATIZATUA SENDOTZEKO BIDEAN

2009an hasi zenetik, ULMA Embedded Solutionsek jakin du merkatuaren beharrak detektatzen eta bezeroei erantzuteko zerbitzuen eskaintza definitzen. Duela hiru urte, industrian testa automatizatze sistemetan integratzailerik ez zegoela-eta, lan ildo berri bat ezarri zuen, bere taldeak arlo horretan duen ezagutza tekniko baliatuz.

Kalitate lerro automatizatu horrek **neurketa, balidazio eta kontrol sistemak garatzen ditu hainbat aplikazio eta sektoretarako. Produkzio lerroen amaieran testak egiteko soluzioak eskaintzen ditu, produktu elektronikoen muntaketa egokia ziurtatuz.** Eta, gainera, neurri egindako saiakuntza bankuak garatzen ditu, produktuei hainbat proba egiteko, muturreko baldintzetan duten portaera neurtzeko. ULMA Embedded Solutions Hardware-in-the-loop (Hil) bidezko simulazio proiektuetan eta SCADA sistemen garapenean ere espezializatuta dago.



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

Taldearen esperientziak eta 6TL eta MSI Taldearekin dituen aliantza estrategikoen aukera ematen diote merkatuan harrera oso ona duten irtenbide lehiakor, eskalagarri eta kalitate handikoak garatzeko.



## ULMA HANDLING SYSTEMSEK HOTZAREN LOGISTIKAREN SEKTOREKO JOERAK AURKEZTU DITU



ULMA Handling Systemsek "Hotzaren XII. Jardunaldi Logistikoetan" parte hartu du, C Komunikazio Taldeko Logistika sailak antolatuta, Espainiako Hotzaren Ustiategi, Logistika eta Banaketen Elkartearekin batera (ALDEFE), ekainaren 8tik 10era.

Cesar Nostik, ULMAko zuzendari komertzialak, **hotzaren logistikaren sektoreko joerak aurkeztu eta ULMAk garatutako hainbat kasu arrakastatsu azaldu** zituen. Jardunaldietan, gainera, Hotzeko Biltegiatzearen Behatokia aurkeztu zen lehenbizikoz, ALDEFERen eta Zaragozako Unibertsitatearen arteko lankidetzaren emaitza, eta helburua da ezagutzarako tresna bat izatea, kideei perspektiba proaktiboagoa hartzen laguntzeko Logistika eta biltegiatzea planifikatu behar dutenean.

## GUADIANA NAZIOARTEKO ZUBIAREN BIRMOLDAKETA

GUADIANA IBAIAREN GAINEKO NAZIOARTEKO ZUBIAK ESPAINIA ETA PORTUGAL LOTZEN DITU, AYAMONTE ETA VILA REAL DE SANTO ANTONIO HERRIEN ARTEAN. 1991TIK, IBERIAR PENINTSULA OSATZEN DUTEN BI HERRIALDEEN ARTEKO BATASUNAREN IKUR BIHURTU DA.

Jose Luis Cancio Martins eta Teixeira Duarte arkitektoek hormigoi armatuan eta altzairuan egindako 666 metroko eraikuntza, bost baotan banatua dago.

ULMAk **460 tona aldamiu eta enkofratu jarri** ditu Guadiana ibaiaren gaineko nazioarteko zubia birgaitzeko lanak egiteko. Askotariko jarduketak egin behar izan direnez eta ekipoak ugari erabili behar izan direnez, ezin hobeto koordinatu behar izan dira proiektuko parte hartzaile guztiak.

Tiranteak birgaitzeko lanak egiteko, 100 m-ko altuerako pilonoak BRIO norabide anitzeko aldamioarekin estali dira, eta maila guztietara iristeko eskailerak instalatu dira. **Aldamioaren diseinua pilonoen geometriara eta pilonoetan dauden tenkatze kabletara egokitu dira, eta, horrez gain,**



**segurtasunez lan egiteko lekuak eratu dira.** Horri gehitu behar zaizkio haizeak eragin handia duen eremu batean muntatzeak dakartzan zailtasunak.

ULMA CONSTRUCTION

## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS ENPRESAK DRAINATZE SISTEMA EZKUTU BAT EZARRI DU KANARIA HANDIKO LAS PALMASEN



Bere azken proiektuetako batean, ULMA Architectural Solutionsek **multzoaren estetika mantentzea lortu du, ikusten ez den drainatze sistema batekin.**

Kanaria Handiko Las PalmasEko Itsas Frontea da. Proiektua, bertako Romera y Ruiz arkitektura estudioarena, bela latinoko ontzi tradizioarekin oinarrituta dago, eta hari egindako omenaldia da.

Proiektu irudimentsu horren berrikuntza nagusia da ezkutuko drainatze sistema bat erabiltzen duela, multzoaren estetika bisual osoa mantentzea ahalbidetzen duena, ia oharkabean geratzen baita. Drainatze sistema hori itsas pasealeku osoan eta itsasoaren gainean esekita dagoen terrazan aplikatu da, eta **sareta artekatua eta kanala konbinatzen** ditu. Guztiz **bateragarria da drainatze**

**arin, tekniko eta obra zibileko beharretarako.**

Mantentzeko eta garbitzeko, erregistro akoplagarriak instalatzen dira. Horiek ezaugarri eta neurri berberekin fabrikatzen dira, eta erraz atera daitezke, beharrezko mantentze lanak egiteko.

## ULMA PACKAGINGEK SOLUZIO MONOMATERIALEN ZIGILATZEA HOBETZEN DUEN BETTER-SEAL™ SISTEMA BERRITZAILEA GEHITU DU BERE MAKINETAN



BETTER-SEAL™ ULMAk ematen duen erantzun berritzailea da, ontzien packagingean film monomaterialak erabiltzeak sortzen dituen zailtasunei aurre egiteko eta ontzien birziklapena errazteko.

Teknologia berri horrekin, ULMAk ekodiseinuaren eta jasangarritasunaren arloko erronka garrantzitsuenetako bati erantzuten dio, eta film monomaterialak, hala nola mono-PP edo mono-PEko laminatuek, duten makinatze gaitasunari eragiten dioten arazoak konpontzen ditu, film horiek lantzeko tenperatura tartea material konbentzionalena baino estuagoa baita. Ontzi monomaterialak %90ean eta are % 95ean material bakar batez eginda daude, eta horrek birziklatzea errazten du, eta, horrela, ekonomia zirkularerako trantsizioaren aldeko konpromisoa sustatzen da.



## IRUÑEKO ERAIKIN BAT ZAHARBERRITZEA FATXADA AIREZTATUAREKIN

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



"Asko baloratzen dugu enpresan inplikaturako pertsona guztien jarrera ona eta ezagutza: komertzialak, laguntza eman diguten teknikariak eta muntatzaileak". Hori da TCGA Arquitectos estudioko Iñaki Tanco arkitektoaren iritzia; izan ere, ULMA Architectural Solutions estudio horrekin lankidetzan aritu da Iruñeko itxura bereziko eta neurri handiko eraikin bateko fatxada zaharberritzeko.

arrakastatsua izan dadin hasieratik amaierara arte.

Zaharberritze horretarako, hainbat akaberatako testurak dituzten panelak, paper zuria eta lur beltza konbinatu dira, fatxadari kanpoko itxura erakargarria eta berritua emanez.

Gero eta ohikoagoa da eraikinak ULMAren fatxada aireztatuko sistemarekin zaharberritzea, eta, horren ondorioz, erosotasuna eta eraikinaren beraren balioa handitzea, %25era arte birbaloriza baitaitezke. Proiektu horiek, gainera, etengabeko lankidetzak eskatzen dute proiektugileen, fabrikatzaileen eta instalatzaileen artean, zaharberritze proiektua



FATXADA AIREZTATUAREN SISTEMAREKIN ZAHARBERRITUTAKO ETXEBIZITZEK EROSOTASUNA IRABAZTEN DUTE ETXE BARRUAN, ETA BALIOA %25 ERE HANDITU DAITEKE.

## INOXTRUCKEN NEURRIRAKO SOLUZIOA CASA TARRADELLASENTZAT

ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK



Casa Tarradellas pizza fabrikatzaile garrantzitsu eta ezagunenetako bat da Espainian, eta ULMA Manutentzio Zerbitzuko Inoxtrucken soluzioak txertatu ditu ekoizpen prozesuetan.

**Lantegi produktiboetako espazioak mugatuta daudenez, irtenbide irudimentsuak bilatu behar dira,** kasu honetan, pizzak prestatzeko lerroak aurretik kargatzeko sistema klasikoaren ordezkari edukiontzia albo batetik elikatuz. Pizza gaineko toppingak eskuz dosifikatzeko "aska" batzuetara pixkanaka deskargatzen direlarik, **ULMAk bere iraulgailuak produktura egokitutako inbutuekin hornitu ditu, dosifikazio egokia ahalbidetzeko eta produktua ez trinkotzeko eta nahi ez diren erorketak saihesteko.**

Horrela, **makina bakar batek hainbat produktu banatu ditzake:** urdaiazpikoa, oilaskoa, bacona... inolako aldaketarik egin gabe.

Inoxtruckek egunero lan egiten du bezeroen beharretara erabat egokitutako kalitatezko irtenbideak eskaintzeko, eta fidagarritasunari eta higienizagarritasunari esker, bere ekipamenduak berme guztiak dituen soluzio bihurtzen dira.



## 63 LAGUNEK LORTU DUTE ULMA ENPLEGARRITASUN PROFILA

ULMA Taldea 50 urtetik beherako bazkideekin garatzen ari den enplegagarritasun planaren barruan, ULMAko hainbat negoziotako 63 lagunek lortu dute profila Prestakuntza Planeko ikastaroak amaitu ondoren.

Ikastaroak Goi mailako Ziklorik ez duten eta 2017ko irailean 50 urte baino gutxiago zuten iraupen mugagabeko bazkideei zuzenduta daude. Ikastaroak Miguel Altuna institutuak eman ditu, Bergaran dituen instalazioetan, eta helburua izan da ULMA Profila lortzea Fabrikazio Mekanikoan, Industria Makineria eta Ekipamenduan, Mekatronikan eta Materialetan eta Soldaduran. Joan den ekainean eta uztailan diplomak banatzeko ekitaldiak egin dira, telematikoki, ULMA profilaren errekonozimendurako ekitaldi presentzial bat egiteko zain, egoerak uzten digun neurrian.

ULMA TALDEA



ULMA Conveyor Componentsen diplomak banatu dira



## MK ZINBRIAK ZAMA AHALMEN HANDIA DUELA ERAKUTSI DU PAVIAN HONDAKINAK BIHURTZEKO PLANTA ERAIKITZEKO LANETAN

ULMAK INGENIARITZAKO LAGUNTZA ETENGABEA, KOSTUEN MURRIZKETA ETA KALITATE ETA SEGURITASUN MAILA HANDIAK ESKAINI DITU, PAVIAN (ITALIA) A2A HONDAKINAK ENERGIA BIHURTZEKO PLANTAREN PROIEKTUA ERAIKITZEKO LANETAN.

Planta honetan 230.000 tona hondakin prozesatuko dira, errausteko: hondakinen %99 erreko da, eta 200.000 megawatt elektrizitate sortuko dira urtean, gaur egun sortzen diren 40.000 megawatten aldean.

MK zinbria dorreak erabili dira plantako turbina erraldioen toberari eutsiko dion **6 metroko lodierako zeharkako habea zurkaizteko, 21 metroko altueran.**

MK Zinbria ingeniariatza zibilean errendimendu handiena duen karga handiko zurkaizte sistemetakoa bat da. Oineko **250-360 kN inguruko edukierarekin, osagai gutxi ditu eta askotariko konfigurazioetarako aukera**



ematen du. Muntaketa lekuan bertan egin da, azkar eta seguru, ULMAko teknikari baten etengabeko laguntzarekin, prozesu osoan gainbegiratzen eta laguntzen egon

baita. Garabien laguntzarekin, dorreak dagokien lekuan jarri dira; desmuntatzeko faseetan, berriz, dorre bakoitzaren oinarrian jarritako arrabolei esker mugitu ahal izan ziren.

## ULMA CONVEYOR COMPONENTSEK PRESENTZIA SENDOTU DU EUROPAKO IPARRALDEAN

ULMA CONVEYOR COMPONENTS



ULMA Conveyor Componentsek iparraldeko herrialdeetan duen presentzia sendotu du EPC enpresarekin lankidetzan arituz, arrabolak hornitzeko eta banatzeko ingurune oso hotzetako aplikazioetarako.

Arrabolen diseinuak eta, bereziki, ULMAk garatzen duen errodamenduen babesarenak, **aukera ematen du arrabolaren aurrealdean ura edo hezetasuna ez metatzeko, arrabola geldirik dagoenean ere. Horrela, zero**

azpiko baldintzetan likido izoztuak arrabolaren biraketa eta garraiatzaileen abioak blokeatzea saihesten da.

Bere diseinuaz gain, arrabolen buxaduran erabiltzen diren materialak tenperatura oso baxuetarako egokiak dira, **bere propietate mekanikoak mantentzen dituztelako eta arrabolaren errodamendu optimoa lubrifikatzen dutelako uneoro, energia kontsumoa handitu gabe.**

Ezaugarri horien guztien ondorioz, ULMA erreferentzia bihurtzen ari da sektorean herrialde eta aplikazio horietan.

## BILTEGI AUTOMATIZATU BERRIA, ULMA HANDLING SYSTEMS ENPRESAK GARATUA

Automobilgintzaren sektorean cockpiten mihiztaduran espezializatuta dagoen enpresa alemaniar ospetsu batek ULMA Handling Systemsen biltegi automatizatu berri baten alde egin du, Iruñeko ekoizpen zentroan. Proiektu berriak **biltegi automatizatu berri baten alde egin du, Iruñeko ekoizpen zentroan. Proiektu berriak biltegi automatizatu berri baten alde egin du, Iruñeko ekoizpen zentroan. Proiektu berriak biltegi automatizatu berri baten alde egin du, Iruñeko ekoizpen zentroan.**

ULMA eta enpresa horren arteko harremana duela urte batzuk hasi zen. **ULMAk 2016an garatutako automatizazio logistikoak produktibitatea handitu du, baita produktuen trazabilitatea**



ere, **prozesu logistikoaren efizientzia optimizatu du eta, beraz, bezeroei eskaintako zerbitzua hobetu du.** Esperientzia

positibo horren ondoren, ULMAren aldeko apustua egin dute berriro.

## AKTIBLAITU, EUSKARAREKIN DITUGUN OHITURAK AKTIBATZEKO LEHIAKETA BERRIA

ULMA TALDEA



ULMA Taldeak **Aktibblaitu** lehiaketa antolatu du. **Helburua da arlo profesionalen eta pertsonalean hizkuntza portaeren inguruan gogoeta egitea, norberaren pentsamendua aktibatzea eta hizkuntza ohitura berrietan**

**blaitzea.** Maiatzaren 19tik ekainaren 23ra egon da lehiaketa martxan, eta ULMA taldeko 200 lagunek baino gehiagok parte hartu dute.

Asteazkenero bi galdera egiten ziren Interneteko Begira atariko

"Aktibblaitu lehiaketa" atalean, eta parte hartzen zuenak astebeteko epea zuen erantzuteko. Negozio bakoitzeko irabazleek Ereindajan produktu saski bana jaso dute, eta parte hartu duten guztien artean euskarazko liburuak zozkatu dira.

Horrenbestez, **Aktibblaitu ULMA Taldeak hizkuntza ohiturei buruz abian jarri dituen beste ekimen batzuekin bat egiten du:** Bidegorriak Euskararentzat, Euskaraldia eta TELP ikastaroak, udazkenean berriro hasiko direnak Talde mailan.



## ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

# ITZALETIK ARGIRA. DISKO BIHURTUTAKO HOBBYA



—  
**IBAN YANIZ**  
ULMA PACKAGING

**“ASKO-ASKO GOZATU DUT DISKOA SORTZEKO PROZESU OSOAN. MUSIKAK, ETA ARE GEHIAGO INSTRUMENTU BAT JOTZEAK, AHALMEN TERAPEUTIKO HANDIA DU ETA OSO IHESBIDE ONA DA”.**

—  
**Iban Yanizek ULMA Packagingeko Komunikazio arloan lan egiten du duela 22 urtetik, baina ULMAN lan egiteaz gain, hainbat zaletasun ditu eta horietan nabarmentzen da. Horietako bat musika da.**

Bere lan ingurunean askok alderdi hori ezagutzen ez bazuten ere, musikari beteteranoa da eta 17 urterekin hasi zen gitarra jotzen, herriko hainbat talderen itzalean. Bertso talde iragankorretan parte hartu ondoren, beti rock klasikoaren eta bluesaren esparruan, finalista izatera iritsi zen Donostia Hiriko maketa lehiaketan. Hainbat urtez musikari, gitarrista eta soinu teknikaritarako autoprestakuntzan aritu eta gero, aspaldi gordeta zituen piezen aukeraketa bat argitaratzea erabaki du, eta hortik dator izenburua, Itzaletik argira, diskoaren azal iradokitzailean islatua, zeinean figura bat baso ilun eta lanbrotsu batetik ateratzen den argi itsugarri baterantz.

Musikariak bere kabuz ekoiztutako lana da, etxeko estudioan grabatua azken 3 urteetan. Bertan, 10 konposizio propio erakusten ditu, ezaugarriak izanik gai geldoak eta instrumentu akustikoak, giro melodiko, nostalgiko eta trinko baten barruan, non euskarazko letrek gizakiaz, bere esperientziez, irrikaz, sentimenduez eta frustrazioez hitz egiten diguten.

*“Beti hartu izan dut musika hobby gisa, baina orain dela hiru urte, beste bakarlari batzuk autoekoiztutako diskoak argitaratzen hasi zirela ikusita, ni animatu nintzen nirea argitaratzera. Estilo akustiko lasai batera bideratzea erabaki nuen (rock - folk alternatiboa).*

*Aspaldi sortutako zirriborro batzuk aprobeztatu nituen eta, konposizio berriak gehituz, albuma osatzen duten 10 abestiak elkartu nituen. Landu, letra jarri, grabatu, nahastu eta abar egin ondoren, diskoak argia ikusi zuen”, diosku Ibanek.*

Diskoa sortzeko, bere estiloarekin bat zetozen musika tresna akustiko batzuk gehitzeko beharra ikusi zuen, hala nola mandolina eta dobroa (gitarra erresonadorea), folk amerikarrek ohiko musika tresnak. Haiekin moldatzen ikasi zuen, eta gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa, baxua, pianoa eta bateria sartu zituen.

Lana presarik gabe egin du, dedikazio handiz eta mimo handiz. Oso album landua da, eta moldaketa aberats ugari ditu.

Instrumentuekin trebea, Ibani ez zaio zaila egin musika sortzea. Grabazioekin eta alderdi teknikoarekin, nahasketekin, masterizazioarekin eta abarrekin ere oso ondo konpontzen da; abestiei letrak jartzea izan da

denbora gehien eman diona, baina emaitzarekin positiboki harrিতuta dagoela aitortu du.

*“Disko bat argitaratzea beti da erronka bat, baina asko-asko gozatu eta ikasi dut prozesuan. Ihes egiteko modu ona izan da. Musikak, eta are gehiago instrumentu bat jotzeak, ahalmen terapeutiko handia du eta oso ihesbide ona da”.*

Berak sortutako bideoklip bat argitaratu du... *“gaur egun, sare sozialetan ezagutzera emateko ezinbestekoa da. Zaila da musika bere hutsean zabaltzea, irudiekin lagundu behar duzu interesa izan dezan. Bideo apala da, etxean grabatua, baina uste dut ez dela gaizki geratu”,* adierazi digu Yanizek.

Ibanen diskoa oso harrera ona izaten ari da kritika espezializatuaren aldetik eta entzuleen artean. CD formatua Elkar dendetan dago salgai, eta Oñatin, Aranburu pintura dendan; plataforma digitaletan ere entzun daiteke (Spotify...).






# IRUDI ETA NORTASUN BISUAL KORPORATIBO BERRIA ULMARENTZAT

2020. urtean zehar eta 2021eko lehen hilabeteetan, Taldeko Komunikazio Batzordeak irudi eta nortasun bisual korporatiboa berrikusteko proiektua landu eta koordinatu zuen. ULMA Taldeko organo korporatiboek onartu berri dute proiektua. Berrikuspen proiektu garrantzitsua da, eta ULMAren gako grafiko eta bisual guztiak egokitu, antolatu eta definitu ditu datorren hamarkadari begira.

Proiektua testuinguruan jartzeko, garrantzitsua da aipatzea ULMA Taldearen Komunikazio, irudi eta nortasun politika POGUn definituta dagoela, eta Taldearen kanpoko eta barneko komunikazioaren kudeaketan eta koordinazioan eta ULMA markaren erabileran eta babesean zehazten dela. Hain zuzen ere, markaren gai horretan dago gure Irudi eta nortasun bisual korporatiboaren pisurik handiena. Azken helburua Taldearen irudi eta nortasun korporatibo sendoa, berezgarria eta denboran iraunkorra eraikitzea da.



Fotomuntaketak diseinu prototipoetatik sortu dira

## Irudi eta nortasun bisual korporatiboaren eskuliburua

Definitu eta onartu den araudia ULMA Taldearen nortasun bisual korporatiboaren eskuliburu berrian zehaztuko da. Eskuliburu horretan, gure irudiari eta nortasunari lotuta dauden eta nahitaez bete beharko diren alderdi guztiak jasoko dira. Hortik aurrera garatuko dira euskarri, mezu eta eduki korporatiboak, markaren irudia indartu eta gure Negozioak dagozkien merkatuetan behar bezala kokatzen lagunduko dutenak.

## HELBURUAK

### 1

Gure nortasun korporatiboa sendotzea eta sustatzea, horren gainean bermatzeko gure enpresa kultura kooperatiboa, Talde gisa, irudi eta nortasun bisual digitalago baten bidez eta XXI. mendera egokituta.

### 2

Gure balioak koherentziaz komunikatzea eta proiektatzea ULMA Marka behar bezala erabiliz eta aplikatuz.

### 3

Gure mezu eta komunikazio guztietan, ULMA Talde indartsuaren proiektua behin eta berriz helarazi eta zabaltzea, **markaren babes indartsu** baten bidez.

## “

*Talde gisa, gure Irudi eta Nortasun osoaren oinarriak eta erreferentzia grafikoak eta bisualak ezarri nahi ditugu datorren hamarkadari begira*

**CARLOS SARABIA**

ULMAko Marka eta Komunikazio Arloko arduraduna eta Taldeko Komunikazio Batzordeko koordinatzailea.



# ULMA ETA PANDEMIA

HILABETE GOGORRAK ETA ZAILAK IZAN DIRA, ETA PANDEMIAK GURE BALIO KOOPERATIBOEN AURREAN JARRI GAITU. GAUR, URTE ETA ERDI GEROAGO, TALDE GISA INDARTUTA ATERA GARELA ESAN DEZAKEGU, ELKARTASUNAREN ETA EGIKERA ONAREN ETSENPLUA EMANEZ. ESKERRIK ASKO ULMAKO KIDE GUZTIOI EGOERA HONETAN LAGUNTZEAGATIK, IZAN ERE, HORRI ESKER EUTSI DIOGU JARDUERARI LAN INGURUNE SEGURU BATEAN.

## COVID BATZORDEA

ETA ULMAKO JARDUERA PROTOKOLO OROKORRA

Hasieratik, Koronabirus Batzorde bat ezarri genuen ULMA Taldean, egoeraren jarraipena egiteko eta beharrezkoak ziren prebentzio jarduerak koordinatzeko. Gure kooperatiba guztietako pertsonak osatuta, barne aholkulariekin, eta osasun agintariekin koordinatuta, egoeraren bilakaera aztertzen eta protokoloak eguneratzen jardun zuen. Koronabirus Batzordea ULMAko kide guztien osasuna ahalik eta gehien babesteko sortu zen, agintari eskumendunek emandako jarraibideak betetzeko eta jarduera osagarriekin osatzeko, beharrezkotzat jo baitziren birusaren hedapena kontrolatzeko eta jarduera industrialaren jarraipena

bermatzeko. Arau eta jarraibide horiek guztiak ULMAren Jarduera Protokolo Orokorrean zehaztu ziren, eta ULMAn lan egiten dugun pertsona guztiek bete behar izan dituzte, baita gure instalazioetara sartzen diren kanpoko langileek ere.





# LEKUKOTZAK

ULMA TALDEKO ZUZENDARI NAGUSIAK, LEHENDAKARIAK ETA OSASUN ARDURADUN MEDIKUAK AZKEN URTE ETA ERDIAN ULMAN BIZI IZANDAKOARI BURUZKO IRITZIA EMAN DIGUTE.



**IÑAKI GABILONDO**

ULMA Taldeko zuzendari nagusia

*ULMA Taldearen jarduna ikusgarria izan da, bai Negozio mailan eta baita Talde mailan ere*

Pandemiak mahai gainean jarri digu gure errealitatearen oinarri den hauskortasuna, bai maila pertsonalean, bai enpresa mailan. Hipotesi auresangarrietan oinarrituta egiten ditugu etorkizuneko planak, eta gutxi-asko kontrolatua izango den etorkizuna marrazten dugu; hala ere, gertaerek behin eta berriz erakusten digute hori ez dela horrela. Eta horren erakusgarri dira, adibidez, azken 8 urteak, non krisi ekonomikoak izan ditugun, bai eta negoziok egiteko arauak aldatu dituzten aldaketa politikoak, aldaketa teknologikoak eta, azkenik, osasun krisia ere.

Gero eta interkonektatuago dagoen gizarte batean bizi gara, eta hori ez da erretorika. ULMA Taldearen negozioren ikuspegitik, nazioarteko albiste garrantzitsuenak irakurtzea proposatzen dizuet (ia astero gertatzen baita gauza garrantzitsuren bat), eta konturatuko gara horiek guztiek, modu batera edo bestera, eragina dutela negozioren batean edo batzuetan. Eta horri guztiari etengabeko aldaketa teknologikoak, ohitura aldaketak eta beste hainbat faktore gehitzen badizkiogu,

bestelako agertoki bat marrazten ari gara, non gure negozioetarako joko arauak egunetik egunera azkarrago aldatzen diren.

Eta, azkenik, "beltxarga beltzak" ditugu, esan nahi baita, ezusteko gertaerak eta eragin sozioekonomiko handia dutenak, hala nola koronabirusa. Gero, beti agertzen dira ahotsak, ikerketak eta abar, eta esaten digute gertatutakoa ez dela hain harrigarria (lehenago ere gertatu zen Espainiako sukarra zela tarteko, etab.), baina errealitatean ez dago inongo gobernu edo nazioz gaidiko erakunderik, arrisku hori benetan kontuan hartu duenik (aurrekontua duten ekintza zein planekin).


Salbuespeneko egoera batean gaude eta iragan ezagun batera itzul gaitzkeela pentsatu behar dugu ala ez? Inoiz ez da iraganeko egoeretara itzultzen, eta ez da zentzugabea pentsatzea aldaketak eta inpaktuak etengabeak izango direla etorkizunean. Beraz, ezinbestekoa dugu prest egotea.

Eta nola jokatzeko da horrelako egoera batean? ULMA Taldeak baditu

gako batzuk epe laburreko bere jardunerako; egoeraz azkar jabetzea eta azkar jokatzea; era guztietako konponbideak ezartzean jarrera positiboa eta lankidetzakoa izatea; malgutasuna eta konpromisoa izatea proposatzen diren aldaketak onartzeko; eta zenbait erabaki ulertzea, ziurgabetasun handiko egoerez ari baikara. Eta epe ertainera edo luzera, gure erakundea egokitu eta gaituz joatea, sor daitezkeen egoerei aurre egiteko prest egon dadin.

ULMA Taldearen jarduna ikusgarria izan da, bai Negozio mailan eta baita Talde mailan ere. Erreportaje honetan, aipatutakoaren erakusgarri batzuk ikusiko dituzue. Emaizta ez da kasualitatea, egindako lanaren eta kolektibo osoak erakutsitako konpromisoaren emaitza baizik. Indarberrituta atera gara egoera berezi honetatik, eta gure erantzuteko gaitasuna erakutsi dugu.

ZORIONAK ETA MILA ESKER DENOII



**LANDER DIAZ DE GEREÑU**

ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakaria

ULMA Taldeak zoritxar askori egin behar izan die aurre bere historian zehar, baina ausartuko nintzateke esaten ez dela COVID-19aren pandemia bezalakorik egon. Sekula ez genuen eduki mugikortasuna ia ezereza murriztu duen egoerarik, ez soilik maila lokalean, baizik eta mundu mailan. Gure Negozioetan izan duen inpaktua ikaragarria izan da, baina ez da ULMA Taldea osatzen dugun pertsonengan izan duena baino txikiagoa izan.

Gure Zuzendaritza Kontseiluek eta Kontseilu Errektoreek erabaki zailak hartu behar izan dituzte, eta erabaki horiek ez dira beti pertsona guztien gustukoak izan. Baina helburua guztion ongizatea bada, uste dut gehienak egokiak izan direla.

Dena den, horretatik guztitik zerbait azpimarratuko banu, kolektiboak eman digun erantzuna da, erantzukizun lezio handia eman baitugu. Hain egoera zailean, Negozioen beharretara egokitzen

*Kolektiboak eman digun erantzuna nabarmenduko nuke, erantzukizun lezio handia emanez*

jakin du, beti jakinda pertsonen osasuna beste ezeren gainetik zegoela. Zalantzarik gabe, horrek guztiak lehendik bagenekien arren, askotan ahaztu izan zaigun zerbait gogorarazi digu: ULMAn pertsona erdigunean dagoela, baina ez subjektu pasibo gisa, subjektu aktibo gisa baizik.



**MIKEL UÑA**

ULMA Taldeko Laneko Osasun arloko arduradun medikua

Orain arte, inoiz ez ziren hainbeste neurri aktibatu hainbeste gobernutatik batera, komunikabideek etengabeko jarraipena eginez eta mundu osoko ikerketa talde ugariaren informazio piloa jasoz. Horrek etengabeko aldaketak eragin ditu protokolo eta prozedura ofizialetan, eta ziurgabetasun egoera herritarren artean.

ULMAn, azkar moldatu ginen hasieratik neurriak hartuz, pertsona guztien parte hartze aktiboarekin, negozio guztietatik kohesionatutako ekintza bateratuekin eta kooperatibetako gobernu organo guztien konpromisoarekin. Gaur egun, txertoei esker, pixkanaka, egoera gaintzen ari gara, segurtasun handiago sentitzen dugu eta normaltasuna

*Ez dugu erlaxatu behar eta orain arte jarri dugun arreta eta esfortzu berari eutsi behar diogu*

berreskuratzen/hurbiltzen ari gara.

Gertu izan ditugun kasuen ondoren, uste dugu ez dugula erlaxatu behar, eta orain arte ULMA osatzen dugun pertsona guztien ulermenarekin eta konpromisoarekin kolektibo osoaren osasuna lehenesteko jarri dugun arreta eta esfortzu berari eutsi behar diogula.



# EKINTZA OROKORRAK

ULMAKO COVID BATZORDEAK PROPOSATUTAKO ETA TALDEAK GARATUTAKO EKINTZAK

## GOMENDIOAK ETA PREBENTZIOA

Kolektiboari informazioa ematea osasun agintarien gomendioei buruz, egiten diren urratsei buruz, ezartzen diren ekintzei buruz eta egoerari aurre egiteko ULMAko Koronabirus Batzordeak adierazitako prebentzio neurriei buruz.



## ONLINE HITZALDIA

Nerea Mendizabalen online hitzaldia ULMAko pertsoneri zuzendua: "Beldurraren pandemia, COVIDa eta emozioak".



## SENTEBILIZAZIO KANPAINAK

COVID19ari buruzko sentebilizazio eta prebentzio kanpainak ULMA, gure komunikazio kanaletan argitaratutako kartel eta liburuxken bidez.



## LANKIDETZAK

Gurutze Gorria, Elikagaien Bankura eta Caritasera bideratuko laguntza ekonomikoak, pandemiaren eraginez okerren dauden pertsonen egoera arintzen laguntzeko.





## GURE NEGOZIOAK ETA COVIDA

LAN IKUSGARRIA GURE NEGOZIOETAN, COVIDAK SORTUTAKO EGOERA ZAILAREN AURREAN AHALEGINAK AREAGOTUZ, BIRUSAREN AURKA BORROKATZEKO AZKAR ETA SEGURTASUNEZ EGOKITUZ, BIRUSAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN HAINBAT NEURRI EZARRIZ AZKEN URTE ETA ERDIAN.



## ULMA ADVANCED FORGED SOLUTIONS

Kooperatiban hartutako neurri guztiak bat etorri dira ULMA Taldeko COVID Batzordeak proposatutako neurriekin, eta nabarmentzen da uneoro eman zaiola kolektiboari Negozioaren egoera epidemiologikoaren berri.

- Maskarak eta gel hidroalkoholikoak jarri dira kolektiboaren eskura.
- Aretoak, jantokiak, vending makinak eta abar kontsignatu dira, egon zitekeen infekzio foku oro kontrolatzeko (pandemiaren hasieran).
- Bilera gelak edukiera mugatuarekin eta segurtasun distantzia errespetatuz ireki dira (pandemiaren egoera egonkortzen joan den heinean).
- Edukiera handiagoko jantoki berri bat prestatu da.
- Garbiketako langileak indartzea, instalazioak hobeto desinfektatzen direla bermatzeko.
- Temperatura kontrolatzea sarbideetan (lehenik bertako langileekin eta ondoren kamera termografikoekin).
- Instalazioetan funtsezko langileak lehenestea.
- Sarrerako eta irteerako puntuak eta dagozkien ordutegiak aldatzea, sarrera eta irteera mailakatuak lortzeko eta sarbideetan eta aldageletan pilaketak saihesteko.
- Neurrien etengabeko kontrola eta jarraipena, eraginkortasuna egiaztatzeko.

## ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

- Teleanaren modalitatea aktibatu da, eta langileen eskura jarri da lana etxetik bertatik egiteko behar duten ekipamendua, lantokiko mugikortasuna eta pertsonen topaketa ahalik eta gehien murrizteko.
- Ordutegien malgutasuna kontziliaziorako. Ikastetxeak ixtean, lan ordutegian malgutasuna eskaini zaie gure langileei, kontziliazio arrazoiengatik.
- COVID Batzordean parte hartzea. ULMA Taldeko COVID Batzordean parte hartu dugu, gure kooperatiban jarraitu beharreko protokoloa lantzeko eta eguneratuta mantentzeko.
- Lantokira itzultzea, modu mailakatuan. Lehenik, bulegoetan dauden gailuak erabili behar zituzten ingeniariak; ondoren, beste proiektukide batzuekin batera lan egitea beharrezkotzat jotzen zuten ingeniariak; eta, azkenik, administrazioko langileak.
- Lantokiko neurriak, lan ingurune segurua ziurtatu ahal izateko. Segurtasun distantzia errespetatzea, mahaien artean manparak jartzea, maskarak erabiltzea, eskuak desinfektatzeko gelak langileen eskura jartzea eta lanpostuetan eta eremu komunetan garbiketa zerbitzua indartzea.
- Kasu positiboetan edo zuzeneko kontaktuetan arakatzea. Pertsonaletik eta LAPetik jarraipena egitea, izan diren kasu positiboetan eta zuzeneko kontaktuetan edo COVIDarekin bateragarria den sintomatologia kasuetan.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Taldearen COVID-19 Protokoloan adierazten diren neurri guztiez gain, kooperatiban beste batzuk hartu dira.

- Tenperaturaren kontrolaren erregistroak. Kooperatibara sartzeko eremuak sortzea, pertsonak etxean zuten tenperatura erregistratzeko. Espazio horietan tenperatura hartzeko termometroak jartzea.
- Espazio horietan, beharrezko informazio garrantzitsu guztia ez ezik, likido hidroalkoholikoa ere badago, eskuak garbitzeko.
- Aldagelen, bulegoen eta komunen garbiketa indartzea, garbiketa taldea bikoiztuz: 2 pertsona goizez eta 2 pertsona arratsaldean, txanda bakoitzean garbitzeko.
- Eremu komunak garbitzea (eskudelak, informazio mahaiak, botoiak, etab.). Garbiketa zerbitzu bat kontratatu da berariaz, elementu horiek egunean bi aldiz garbitzeko.
- Laneko arroparen garbiketa indartzea. Kooperatibari dagokionez, garbiketa enpresa, osagaietan silizea bezalako produktuak erabiltzen direnez, arropa garbitzeaz arduratu behar da. COVID-19a iritsi zenetik, arropa astean behin jaso beharrean bitan jasotzen da, langileek arropa garbia eskura izan dezaten.
- Norberaren mahai tresnak bakarrik baimentzea, atsedenekuetan otorduetan erabiltzeko.
- Edukiera mugatzea aldageletan, aretoetan, atsedenekuetan, txokoetan eta abarretan, itxarrote eremuak markatuta.
- Gel hidroalkoholikoa jartzea txokoetan, eremu komunetan, bilera geletan, etab.
- Erretzaileen eremua pertsona bakar batentzako eremu gisa markatzea eta segurtasun distantziak mantentzea.
- Hainbat kartel lantegi osoan, kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko.
- Maskarak banatzea (FFP2 edo KN95 maskarak fabrikazioko langileentzat, astean 2 gutxienez).
- Bisitak sartzeko kontrola, tenperatura kontrolatuz eta protokoloa adieraziz.
- Erabilitako maskarak jasotzeko gunea prestatzea.
- Bulego eremuetan manparak jartzea.



Tenperatura kontrolatu da lantokietarako sarreran

## ULMA CONSTRUCTION

Kooperatibak hartutako neurriak lantoki bakoitzaren ezaugarrietara egokitu dira (pertsonek kopurua, probintziako arrisku maila, etab.); beraz, neurri guztiak ez dira berdin aplikatu estatuko lantoki guztietan.

- Tenperatura kontrolatzea zentroetako sarreran.
- Lantokietako bisitak mugatzea.
- Jarduerak koordinatzea lantokietara sartzen diren bisitariekin eta azpikontratatistekin.
- Zerbitzu Medikoak kontaktuak arakatzea.
- Sintomak dituzten pertsonen kontrola eta laguntza.
- Pertsona bereziki sentikorrek babestea.
- Kanpora bidaiatzeko kontrola eta laguntza.
- Lanpostuak eta ekipamenduak garbitzeko eta desinfektatzeko lanak indartzea. Lantokiaren arabera, garbiketaren eta desinfekzioaren maiztasuna eta sakontasuna handitu da, garbiketa enprekin kontratuak handituz edo langile propioen bitartez.
- Jantokien erabilera erregulatzea, gehieneko edukierak zehaztuz, eta erabili daitezkeen zein itxi diren lekuak seinaleztatuz.
- Aldagelen eta komun erabilera arautu da, erabiltzeko arauak eta aplikatu beharreko prebentzio neurriak zehaztuta, eta aldagelak itxi dira probintzian 150 intzidentzia indizea izan denean.
- Gehieneko edukierak zehaztea, erabili daitezkeen lekuak seinaleztatzea eta txorrotak ixtea, segurtasun distantzia mantentzeko.
- Kafe eta vending makinak erabilera arautua.
- Bilera presentzialak mugatuta.
- Prestakuntza presentzialak bertan behera utzi dira, eta laneko arriskuen prebentzioko ezinbestekoak mantendu eta arautu dira, gehieneko edukierarekin, desinfekzioarekin eta aireztapenarekin.
- Lantokietako okupazioa murrizteko antolaketa neurriak, txandak, telelanerako aukera eta lanaldi presentzialaren murrizketa antolatuz
- Lanpostuen banaketa eta antolamendu espazialerako neurriak, 2 metroko segurtasun distantzia bermatzeko (metakrilatozko pantailak, lanpostuen birkokapena, etab.)
- Lantoki guztietan langileei maskarak emateko logistika, eta, behar izanez gero, azpikontratatistei.
- Maskaren erabilera erregulatzea.
- Eskuak eta gainazalak garbitzeko xaboia eta beste desinfektatzaile batzuk hornitzea.
- Lantokietako aireztapena erregulatzea leihoak irekiz, klimatizatuz, CO<sub>2</sub> neurketak eginez, etab.
- Jarduerak koordinatzea (COVID), besteen lantokietan sartzeko (obrak)
- Seinaleztapena eta neurrien komunikazioa (kartelak, intraneta, bilerak...)



Jantokietan eta vendingean, elementu edo gune komunak desgaitu dira



## ULMA PACKAGING

COVID-19 pandemia osoan zehar jardura mantendu egin da, funtsezko jardueratzat jo baitzen, kooperatibako pertsonen segurtasuna mantentzeko helburu nagusiarekin eta pertsona guztien erantzukidetasunaren premiarekin.

- Arlo bakoitzaren behar zehatzei, bisitei, azpikontratutako langileei eta abarri erantzuteko jarraibide espezifikoak landu dira.
- Bezeroaren etxerako irteerak eta emandako NBEak erabiltzeko jarraibideak.
- Tenperatura kontrolatzea eta maskarak erabiltzea eta banatzea gure instalazioetarako sarreretan.
- Lanaldia nahiz lan modalitatea egokitzea, bizi dugun egoeraren eskakizunei erantzuteko.
- 2 metroko segurtasun distantzia eta maskararen erabilera jarraitua lanaldi osoan (maskara erabiltzeko eta 2 metro mantentzeko piktogramak).
- Bilera geletako edukiera murriztea, aulkiak eta beste espazio komun batzuk indargabetuz, hala nola atsedenlekuak, jantokiak, aldagelak, etab.
- Bulegoetan mahaiak bereizteko manparak jartzea.
- Lan eremuetako airearen kalitatearen zeharkako neurketa sistematikoak egitea.
- Modu digitalean bilerak eta hitzaldiak egiteko telekomunikazio tresnak ezartzea, harreman presentziala murrizteko.
- Instalazioetan garbiketa zerbitzua handitzea eta osasuna ziurtatzeko desinfekzio gidalerro bat definitzea.
- Kanpoko pertsonen sarrera murriztea gure instalazioetan, eta bisiten protokolo bat zehaztea sartzea ezinbestekoa den kasuetarako.
- Filialen, ordezkartzen eta bezeroen sarearekiko harremanaren eraldaketa digitala.
- Bidaien kopurua minimizatzea, gure filialen eta ordezkartzen sarearekiko lankidetzaren areagotuz; eta helmugako osasun egoera banaka aztertzea ezinbestekoa den bidaiaren aurrean, bai estatuan, bai nazioartean.
- Barneko prestakuntza eskaintza guztia digitalizatzea, urteko prestakuntza planetatik hasi eta prestakuntza ekintza puntualagoetaraino.
- Azpikontratutako langileentzako protokolo

- espezifikoak eskatzea jardueren koordinazioa egiteko orduan.
- Jakinarazpenak aldizka bidaltzea eta kolektibo osoarentzako prestakuntza pilulak zabaltzea, bai indarrean dauden neurriei buruz, bai negozioaren egoerari buruz.



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Kooperatiban hartutako neurri guztiak bat etorri dira ULMA Taldeko COVID Batzordeak langileen osasuna uneoro ziurtatzeko proposatutako neurriekin.

- Instalazioetan sartzen den pertsona bakoitzeko egunero maskara bat hornitzea eta tenperatura neurtzea.
- Gel hidroalkoholkoa hartzeko banagailuak lan eremu bakoitzean.
- Lanpostuen arteko distantzia, 2 metroko distantzia ziurtatuz, edo manpararekin, 1,5 metrora badaude.
- Gehieneko edukiera mugatzea bulegoetako eremu bakoitzean, bilera geletan eta komunetan, espazio bakoitzaren metro koadroen arabera.
- Espazioak eta elementu komunak garbitzeko protokolo bat sortzea, maiztasuna igotzeko, eta erabilera bakoitzean gelarekin garbitzeko.
- Kaferako guneak itxita, garbiketa protokoloarekin martxan jarri arte.
- Bilera gelak antolatzea jan ahal izateko, manparekin, aireztapenarekin eta txandak eginez.
- Etxean bazkaltzeko orduetegiak malgutzatzea, lanaldi jarraitua edo zatitua izateko aukerarekin, behararen arabera.
- Aldagelak erabiltzea: lekuak mugatuta aldageletan, eta txandaka antolatuta, distantziak errespetatzeko.
- Bidaiatzeko muga. Espainiara eta Frantziara autoz bidaiatzeko baimena, baina ez hegazkinez.
- Zerbitzu Medikuari jakinarazteko protokolo bat abian jartzea, infekzioa edo kontaktu estua izanez gero konfinamenduak antolatzeko.
- Zuzendaritza taldearen eguneroko jarraipena, egunero bilerak eginez eta egoerari buruzko komunikazio puntualak eginez, kolektiboaren egoeraren eta beharren jarraipen zorrotza egiteko.
- Telelana. Pertsona bakoitzari ordenagailu eramangarri bat jarri zitzaion, zerbitzarietarako konexioarekin eta Office 365ekin, bideokonferentzia bidez konektatu ahal izateko. Malgutasun handia ordutegiari, lanaldiei eta etxetik lan egiteari dagokienez.
- 3 gela prestatuta bideokonferentzia egin ahal izateko.
- Online aurkezpenak prestatu dira eta sare sozialetako jardura areagotu da, sustapen bideoak egiteaz gain.





## ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

Kooperatiban hartutako neurri guztiak bat etorri dira ULMA Taldeko COVID Batzordeak langileen osasuna uneoro ziurtatzeko proposatutako neurriekin.

- Lay-outa aldatzea segurtasun distantzia mantentzeko, sail bereko pertsonak kokaleku desberdinetan banatuz eta gutxienez 2 metroko tartea utziz.
- Kasu bakoitzean, etxetik lan egiteko aukera aztertzea, salbuespenezko egoera gisa.
- Oñatiko tailerreko atek irekita ordutegi jarraituarekin: 7: 00 etatik 15: 00 etara.
- Oñatiko zerbitzu orokorrak 7: 00 etatik 14:00 etara eta 14:00 etatik 21: 00 etara.
- LTZko teknikariak bezeroaren instalazioetara joaten dira instalazio propioetatik igaro gabe.
- Garraiolariak eta paketeak ezin dira biltegira sartu. Materiala kanpotik jaso eta entregatzen da, kontaktua saihestuz.
- Bi lantalde ezarri dira, bata goizez eta bestea arratsalde, eta pertsona bat 14:00 etatik 22:00 etara.
- Atsedenuketako eta oficeko pertsona kopurua 3ra mugatzea, eta mahaiak eta vending makinak erabili eta gero garbitzea, horretarako baliabideak emanez.
- Aldageletan aldi berean 5 lagunentzako muga. Ordu poltsaren, oporren, egutegia doitzeko orduen eta ordaindu gabeko baimenen kudeaketa arduratsua.
- Lan ordutegiak malgutzea.
- Seme-alabak zaintzeko eskatutako kontziliazioa erraztea, kasu bakoitza objektibatu ondoren.
- Arduradunak izendatzea lantokian kasu positibo bat agertzen denerako, eta, egoeraren eta dimentsioaren arabera, krisi batzorde bat sortzea, egon daitezkeen ondorio sozialak, sanitarioak (kontaktu estua zehaztea), antolamendukoak eta abar aztertzeko.
- Jarduera protokolo orokorra nahitaez bete behar dute kooperatibaren instalazioetara sartu beharrik ez duten pertsona guztiak ere, dela lana zuzenean bezeroarekin (LTZ) egiten dutelako, dela etxetik egiten dutelako.
- Bulegoetako lan ordutegien amaieran eta hasieran leihoak irekitzeko eta ixteko arduradunak izendatzea.
- Vending makinak garbitzea erabilera bakoitzaren amaieran (baliabideak ematen dira).

## ULMA HANDLING SYSTEMS

Kooperatiban hartutako neurri guztiak bat etorri dira ULMA Taldeko COVID Batzordeak proposatutako neurriekin, eta nabarmentzen da uneoro eman zaiola informazioa kolektiboari.

- Bulegoak/komunak/atzedenguneak zonaka eta koloreka banatzea.
- Eraikinean sarrera eta irteera desberdinak prestatzea.
- Eguneko tenperatura hartzea.
- Bisitari eta garraiolariarentzako protokolo berezia.
- Bulegoak antolatzea gutxienezko distantzietarako.
- Gela eta maskarak hornitzea.
- Aldageletan txandak antolatzea.
- Garbiketa eta desinfekzio zerbitzua indartzea.
- Telelana eta ordutegi malgua prestatzea.
- Gehieneko edukiera bilera getetan.
- Bilera telematikoak sustatzea.
- Txartel bidezko erregistroa, hatz markaren ordez.
- Igogailuaren erabilera desgaitu da.
- Orga, zubi garabi eta erreminta komun erabilera mugatzea.
- Txanda aldaketetan pertsonak ez elkartzeko antolamendua.
- Aire etengabe berritzea.
- Kartel bidezko seinaleak, laneko gomendio eta jarraibideetarako.
- Desplazamenduetarako bidaia kitak prestatzea eta entregatzea.
- Dagokion protokoloaren informazio saioak eta deskarguak.
- Bilakaeraren eta adierazleen jarraipena eta monitorizazioa.

# 2021

maiatzak 1 - abuztuak 31

## ERRETIROAK

MIGUEL ANGEL UGARTE

JUAN JOSE IRAZABALBEITIA

ANGEL MARIA ZABALETA

JOSE ANTONIO BEITIALARRINGOITIA

JOKIN UGARTE

IÑIGO DEL RIO

MIGUEL ANGEL DIAZ

PEDRO ISASMENDI

ANTONIO BARREIRO

ANGEL GARCIA

FERNANDO ELIZONDO

CARLOS MOYA

eskerrik asko eta gozatu!

Zorionak

Eskuak eta beste gainazal batzuk desinfektatzeko produktuak jarri dira



**20.000**  
bisita urtean



aldizkariaren  
**11.500** ale,  
3 ale urtean

**TWITTER**

**2.350**  
jarraitzen gaituzten pertsonak  
[@GrupoULMATaldea](#)

**LINKEDIN**

**16.000**  
jarraitzen gaituzten pertsonak  
[www.linkedin.com/company/grupo-ulma](http://www.linkedin.com/company/grupo-ulma)

**PORTALDE**

**14.000**  
bisita urtean  
<https://portalde.ulma.com>

**NEWS**

**2.300**  
hileko bidalketak  
News - ULMArekin bat egin

**www.ulma.com** **90.000** bisita urtean